

ival sonoro · soinu jaialdia · festival sonoro · soinu jaialdia · festival so
ival sonoro · soinu jaialdia · festival sonoro · soinu jaialdia · festival so
ival sonoro · soinu jaialdia · festival sonoro · soinu jaialdia · festival so

marea bizi

abenduak **10, 14, 15** diciembre

Bilbao · Zaldibar

Marea Bizi soinu-jaialdi feminista da, eta gure iruditeria kolektiboa aldatzen ari diren sorkuntza-lanei balioa ematea dauka xede. Jaialdi honen lehenengo edizioak soinu-esperientziak partekatu nahi ditu modu kolektiboan.

Marea Bizi bozgorailua ere izan nahi du gure gizartea mugitzen eta eraldatzen ari diren soinu-lan feministen sorkuntzetarako. Jaialdiak aldaketa hori sustatzea eta Bizkaiko ingurune kultural eta soziala astintzen laguntzea du helburu. Hori dela eta, bere lehenengo edizioan, entzunaldi zein hausnarketa kolektiborako jendaurreko bi jarduera egingo dira, baita sorkuntza feministari buruzko tailerra ere.

Marea Bizi une batez utzi nahi du entzuteko egintza bakartia, elkartzeko, soinuei erreparatzeko eta soinuok zaintzeko. Horrela, sortzeko, azaltzeko, aditzeko eta, azkenean, entzuteko modua aldatuko dugu. Beraz, eraldaketan aurrera egiteko aukera emango digu soinuaren bidez, baina isiltasunaren bidez ere bai; eta, beti-beti, era kolektiboan.


Aurtengo abenduan, **Marea Bizik** historia feministak pentsatzen, ikertzen eta azaltzen eta entzunaldi zein hausnarketa kolektiboetan parte hartzen lagunduko digu. Izan ere, sorkuntza-lanak zein entzunaldiak lerrokatu nahi ditu, eta Bizkaiko emakume sortzaileek soinu-lan feministen ekosistema bultzatzeko darabilten indarra biderkatu nahi du. Eragin eta zabaldu egin nahi du, joan eta etorri, indarberritu, igorri eta, azkenean, pausatu.

Marea Bizi es un festival sonoro feminista que quiere poner en valor creaciones que están cambiando nuestro imaginario colectivo. La primera edición de este festival responde al deseo de compartir experiencias sonoras de manera colectiva.

Marea Bizi quiere también servir de altavoz para las creaciones de obras sonoras feministas que están moviendo y transformando nuestra sociedad. El festival quiere apoyar ese vaivén y contribuir a sacudir el entorno cultural y social de Bizkaia y por eso, en su primera edición, propone dos actividades públicas de escucha y reflexión colectivas y un taller sobre creación feminista.

Marea Bizi es una invitación a dejar, por un momento, el acto solitario de escucha y juntarse para prestar atención a los sonidos y cuidar de ellos, cambiando la forma en que creamos, narramos, oímos y, por fin, escuchamos. Es, por tanto, una invitación a avanzar en la transformación desde el sonido, pero también desde el silencio, y siempre en colectivo.

Este diciembre, **Marea Bizi** invita a pensar, investigar y narrar historias feministas y a participar en escuchas y reflexiones colectivas. Pretende alinear creaciones y escuchas y multiplicar la fuerza con que creadoras bizkainas empujan el ecosistema de obras sonoras feministas. Quiere remover y salpicar, ir y volver, coger fuerza, transmitirla y, por fin, reposar.



Jarduerak

Jaialdian, bi eratako jarduerak garatuko dira: sorkuntza feministari buruzko tailerra, **Andrea Momoitioren** eskutik (Bilbon); eta entzunaldi zein hausnarketa kolektiborako bi saio, **Isabel Cadenas Cañonekin** (Bilbon) eta **Garazi Albizuarekin** eta **Hegoa Álvarezekin** (Zaldibarren).

Actividades

El festival combina dos tipos de actividades: un taller sobre creación feminista de la mano de **Andrea Momoitio** (en Bilbao); y dos sesiones de escucha y reflexión colectiva con **Isabel Cadenas Cañón** (en Bilbao) y **Garazi Albizua** y **Hegoa Álvarez** (en Zaldibar).

Jarduera guztiak doakoak izango dira | Todas las actividades son gratuitas >>>>>>>>>

Tailerra | Taller

Podcastean egindako narrazio feministetarako tresnak

Herramientas para narrativas feministas en pódcast



Jarduera hau gaztelaniaz egingo da | *Actividad en castellano*

REAS Euskadiren laguntzaz egindako tailerra | Taller en colaboración con REAS Euskadi

Doako sarrera lekua bete arte | Entrada libre hasta completar aforo

Izena eman beharra dago jaialdiaren webgunearen bidez | Necesario inscribirse en la web del festival

Abenduaren 10ean, **"Podcastean egindako narrazio feministetarako tresnak"** tailerra egingo da, eta 3 orduko iraupena izango du. Pentsatzen, ikertzen eta historia feministak podcast-formatuan azaltzen ikasteko tailerra izango da, eta edukiari emango zaio lehentasuna: nola eratu kontakizunak, nola egin galdera onak, nola bat egin ikus-entzuleekin eta nola sortu nagusi den narrazioari erronka botatzen dioten diskurtsoak. Soinuaren teknika ez ezik, mezuaren eta historien indarra ere izango dira aztergai. **Bertan, soinukontakizun bihurtuko dira esperientziak.** Tailerrak euren sorkuntza-lanak egin nahi dituztenak edo saiakuntzak egiten ari direnak izango ditu xede.

Urtuellako kazetaria eta idazlea den **Andrea Momoitio San Martínek** emango du prestakuntza. Andrea Pikara Magazine aldizkari digital feministaren sortzailekidea eta bertako batzarreko kidea da. Hain zuzen ere, aldian-aldian idazten du bertan. Lunática liburuaren autorea da, baita Bilboko La Sinsorga gune kultural feministako koordinatzailea ere. Kandela, señora! podcasta garatzen du.

Jarduera hau **Ekonopoloko** agendaren barruan dago kokatuta (Bilboko Udaleko Ekonomia Sozial eta Solidarioaren Poloan).

El 10 de diciembre, se realizará el taller **"Herramientas para narrativas feministas en pódcast"**, con una duración de 3 h. El taller será un espacio donde aprender a pensar, investigar y narrar historias feministas en formato pódcast, poniendo el foco en el contenido: cómo construir relatos, hacer buenas preguntas, conectar con las audiencias y crear discursos que desafíen la narrativa dominante. No se trata solo de la técnica del sonido, sino de la potencia del mensaje y la fuerza de las historias. **Un espacio para transformar experiencias en relatos sonoros.** Orientado a personas que estén experimentando o tengan interés en hacer sus propias creaciones.

Impartirá la formación **Andrea Momoitio San Martín**, periodista y escritora de Ortuella. Andrea es cofundadora y forma parte de la asamblea de la revista digital feminista Pikara Magazine, donde escribe de forma periódica. Es autora del libro Lunática y coordinadora del espacio cultural feminista bilbaíno La Sinsorga. Desarrolla el pódcast Kandela, señora!.


Esta actividad se enmarca dentro de la agenda del **Ekonopolo** (Polo de Economía Social y Solidaria del Ayuntamiento de Bilbao).



| Entzunaldi kolektiboa |

| Escucha colectiva |

Exodus



Jarduera hau euskaraz egingo da | *Actividad en euskera*
Doako sarrera lekua bete arte | Entrada libre hasta completar aforo

Abenduaren 14an, Zaldibarren, **Exodus** saiakuntzazko operatik ateratako zenbait pasarte entzungo ditugu (Hegoa Álvarez Zorroza da libretoa). **Garazi Albizuak** zentzumenezko esperientzia hori gidatuko du, eta **Hegoa Álvarez Zorrozak** parte hartuko du bertan. Entzunaldiaren ostean, trukerako gunea garatuko da, ikus-entzuleen eta sortzaileen artean hausnarketak eta sentsazioak partekatzeko asmoz.

Garazi Albizu Santurtziko komikien zein podcasten gidolaria eta idazlea da. Irakurrian irratsaioan (Bizkaia irratia) lan egin du esatari, eta, idazlea ez ezik, Euskal Idazleen Elkarte Komunikazioko teknikaria ere bada. Ahots planeta eta Mungiako bendeja saltzaileak podcasten sortzaileetako da. Zenbait eleberri argitaratu ditu, Termita (Galaxia Gutenberg, 2024) barne, eta, horri esker, 2025eko Euskadiko Literatura Saria irabazi du gaztelaniaz. Horrez gain, Egunen akabera eleberria (Erein, 2024) eta Kemena (denonartean, 2017) zein Iruleak (Txalaparta, 2022) komikiak ere idatzi ditu.

Hegoa Álvarez Zorroza (Santurtzi) Haur Hezkuntzan graduatu zen EHU-n; eta, Lehen Hezkuntzan, Errioxako Nazioarteko Unibertsitatean. Olerkari, antzerkigile, gidoilari, zuzendari eta idazle moduan parte hartu du zenbait proiektuetan, eta bikoizketako ahots-aktorea ere bada. Besteak beste, honako hauexek dira bere lanak: Beharrez egin dut antzezlan laburra (2023), Hika Teatroarentzako Amen batean antzezlan (2024), Bendeja-saltzaileak Mungiako plazan podcasta (2024) eta Exodus saiakuntzazko opera (2025).

El 14 de diciembre por la mañana, escucharemos algunos fragmentos extraídos de la ópera experimental **Exodus**. **Garazi Albizu** será la encargada de guiar esta experiencia sensorial, y contaremos con la presencia de Hegoa Álvarez Zorroza (escritora del libreto). Después de la escucha se dará paso a un espacio de intercambio para compartir reflexiones y sensaciones entre público y creadoras.

Garazi Albizu es guionista de cómic y podcast, y escritora de Santurtzi. Ha trabajado como locutora en el programa Irakurrian (Bizkaia irratia) y compagina su trabajo de escritora con el de técnica de comunicación en Euskal Idazleen Elkartea. Es una de las creadoras de los podcast feministas Ahots planeta y Mungiako bendeja saltzaileak. Ha publicado varias novelas, incluyendo Termita (Galaxia Gutenberg, 2024), con la que ha ganado el premio Literatura Euskadi 2025 en castellano; Egunen akabera (Erein, 2024), y los cómics Kemena (denonartean, 2017) y Iruleak (Txalaparta, 2022).

Hegoa Álvarez Zorroza (Santurtzi) es graduada en Educación Infantil por la universidad de EHU, y en Educación Primaria por la Universidad Internacional de la Rioja. Ha participado en proyectos como poeta, dramaturga, guionista, directora y escritora, así como actriz de voz en doblaje. Entre sus trabajos está la obra de teatro corto Beharrez egin dut (2023) y Amen batean (2024) para Hika Teatro, el podcast Bendeja-saltzaileak Mungiako plazan (2024), y la ópera experimental Exodus (2025).



| Entzunaldi kolektiboa | | Escucha colectiva |

(De eso no se habla)



Jarduera hau gaztelaniaz egingo da | *Actividad en castellano*

Doako sarrera lekua bete arte | Entrada libre hasta completar aforo

Izena eman beharra dago jaialdiaren webgunearen bidez | Necesario inscribirse en la web del festival

Entzunaldi kolektiborako bigarren jarduera abenduaren 15ean egingo da Bilborocken. Isabel Cadenas Cañónen eskutik, (De eso no se habla) podcastaren kapituluetakoko bat entzungo dugu. Ondoren, gure gizarteko isiltasunei eta bertan ezkututzen diren historiari buruz hausnartuko dugu.

Isabel Cadenas Cañón idazlea, kazetaria eta soinu-artista da. (De eso no se habla) podcasteko zuzendaria da, eta Podcast Onenaren Irratiko Ondas Sari Nazionala irabazi du. Poética de la ausencia: Formas subversivas de la memoria en la cultura visual contemporánea saiakera (Cátedra, 2019) idatzi du, baita bi olerki-liburu ere: Irse eta También eso era el verano. Ikaskuntza Kulturaletan doktoratu zen New York Universityn, eta soinu-dokumentalak, kronikak zein iritzi-artikuluak argitaratu ditu nazio-mailako zein nazioarteko komunikabide ugarian.

La segunda actividad de **escucha colectiva** será el 15 de diciembre, en Bilborock. De la mano de Isabel Cadenas Cañón escucharemos uno de los capítulos de (De eso no se habla). Posteriormente nos invitará a reflexionar en torno a los silencios colectivos en nuestra sociedad y en las historias que esconden.

Isabel Cadenas Cañón es escritora, periodista y artista sonora. Directora de pódcast (De eso no se habla), Premio Ondas Nacional de Radio al mejor Pódcast. Es autora del ensayo Poética de la ausencia: Formas subversivas de la memoria en la cultura visual contemporánea (Cátedra, 2019) y de dos libros de poesía: Irse y También eso era el verano. Doctora en Estudios Culturales por New York University, ha publicado documentales sonoros, crónicas y artículos de opinión en numerosos medios nacionales e internacionales.



Egitaraua

Tailerra | Taller

Podcastean egindako narrazio feministetarako tresnak

Herramientas para narrativas feministas en pódcast

Abenduak 10 diciembre

17:00-19:00

Ekonopolo (Harrobi plaza 4, 48003 Bilbo)



Entzunaldi kolektiboa | Escucha colectiva

Exodus

Abenduak 14 diciembre

12:00-13:30

Liburutegi Zaharra (Euskal Herria etorbidea 5, 48250 Zaldibar)



Entzunaldi kolektiboa | Escucha colectiva

(De eso no se habla)

Abenduak 15 diciembre

19:00-20:30

Bilborock (Mesedeetako kaia 1, 48003, Bilbo)

Programa



marea bizi

Soinu jaialdia • Festival sonoro

www.somoshari.com/marea-bizi

Antolatzailea | Organiza



Babeslea | Subvenciona



Kolaboratzaileak | Colaboran



EKONOPOLO

